



2024SPLE0001
1.bilera: OHIKOA 2024/01/31

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2024/01

EGUNA: 2024/01/31

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:50

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

EAJ-PNV udal taldea:

Asier Urain Buenetxea.

Monica de Prado Paniagua. (Bideokonferentzia bidez)

Jon Riaño Ojanguren.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbieta Egaña.

EH Bildu udal taldea:

Gilen Garcia Boyra.

Itziar Irizar Beristain.

Antxoka Elorza Altuna.

Oihana Irusta Lazkano.

Aritz Larrañaga Unanue.

Edurne Aristi Careaga.

Orain Deba udal taldea:

Isidro Aristi Oruezabal.

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra.

Kontuhartzailea: Jesus Mendizabal Mendizabal

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

1.- Aurreko bilkurari dagozkion akta onartzea, hala badagokio.

Udalbatzari aurkeztu zaizkio 2023ko abenduaren 21ean egindako osoko bilkuraren akta, onar dezan.

Udalbatzak, aho batez, onartzen du 2023ko abenduaren 21ean egindako osoko bilkuraren akta.

Akta onartu ondoren, Gilen Garciak adierazten du aktaren inguruko hainbat zalantza argitzera idazkariarengana jo zuela, eta horrek adierazi ziola aktan akatsaren bat egon daitekeela, hainbat zinegotzi parte hartu zutelako mikrofonoa piztu gabe eta, horregatik, horiek esandakoa, ez zela ondo grabatu. Horregatik, debatea eta hitzaldiak gidatzeko arduraduna den aldetik, alkateari eskatzen dio norbaiti hitza ematen dioenean agindu diezaiola mikrofonoa piztea.

Bestetik, gogorarazten du aurreko agintaldiaren amaieran mikrofonoen sistema berri bat jartzeko aurrekontuak eskatu zirela, eta eskatzen du gaiari berriro ere heltzea.

2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.

Alkateak galdetzen du ea inork zerbait adierazi nahi ote duen Alkatetza dekretuen harira.

Gilen Garciak azaltzen du EH Bildutik badituztela hainbat zalantza.

- 2023/568 Dekretua: «*Itziar-Debako enpresa-parkearen egungo egoerari eta udalak urbanizazio-obrak jasotzeko aukerari buruzko azterlana idaztea.*». Galdetzen du ea noizko izango den azterlan hori.

Alkateak erantzuten dio datozen astetan izango dela horren berri. DEBEGESAtik eskatu dutela udal teknikariek bilera bat, eta bilera horren ondoren zehaztuko da azterketaren edukia eta gutxi gorabeherako epeak.

- 2023/585 Dekretua: «*Ondargaineko likidazioa, 2020. urtekoa eta 2021eko urtarriletik ekainera.*» Dekretuan bertan ikusi dutela erreziiboak banan-banan egin direla, eta galdetzen ea bidali diren erreziibo horiek.

Kontuhartzaileak erantzuten dio dekretuaren jakinarazpena jaso eta berehala bidaliko direla erreziiboak.

- 2024/7 Dekretua: «*Debako argiteria publikoaren auditoretza egitea.*» Auditoretza hori egite arrazoia zein den galdetzen du, dirulaguntzaren bat eskuratzeko behartuta ote den edo.

Alkateak azaltzen du 2030 agendari begira eta energia sostengarritasunaren harira egin beharreko aldaketak egin ahal izateko, horien kostua, eta abar. Azken auditoretza 2018koa dela, eta horren zaharra ez denez, laster egingo dutela oraingo auditoretza.

Auditoretzak ez daukala zerikusirik inolako dirulaguntzarekin. Aurrekontuetan jasotzen dela argiteria berritzeko partida bat, eta horren harira egin behar dela auditoretza, gaur egungo egoera zein den ezagutzeko. Hala ere, inbertsio horretarako dirulaguntzak eskatuko direla, aukerarik izanez gero.

- 2024/19 Dekretua: «*Goikoetxetik harrobira doan lurrezko zatia konpontzea.*» Bidea oso txukun gelditu dela ikusi duela, baina, jakin nahiko dutela ea udal teknikariren batekin kontrastea egin ote den, hau da Hirigintza saileko teknikariren batekin.



2024SPLE0001
1.bilera: OHIKOA 2024/01/31

Alkateak erantzuten dio gai hori Turismotik bideratu dela, eta, bere ustez, eurek kudeatu dutela prozesu guztia, enprekin hitz egitea, eskaintzen balorazioa, eta abar.

Gilen Garciak galdetzen du ea noiz hasi ziren lan horiek. Gehien bat, aintzat hartuta dekretua urtarrilaren 16koa dela, eta lanak, berriz, urtarrilaren 11n hasita zeuden. Horregatik jakin nahi dute ea nork eman zuen lanak hasteko agindua eta zergatik.

Alkateak erantzuten dio agindua berak eman zuela, baina izan daitekeela dekretua pixka bat beranduago sinatu izana.

- 2024/21 Dekretua: «*Amillagako UJP_Hasierako onespena.*» Ebakia Lurraldetasun batzordearen bilera eguna baino aste bete lehenago hartu zen, eta galdetzen du zergatik ez zen batzordetik pasa erabakia hartu baino lehen.

Alkateak erantzuten dio hasierako onespena Alkatetza dekretuaren bidez onartzen dela eta, horregatik, gaia ez zela joan horren aurretik batzordera.

Gilen Garciak gehitzen du, euren ustez, ondoren jasotako idatzizko erantzuna ez dela batere serio izan, bertan jasotzen diren argudio nagusiak alkateak zer ez zuen esan direla, baina, edozein gobernuaren zeregina dela gaiak alderdi politiko eta herritarrekin konpartitzea. Hortaz, negoziatorik egon ez bada, nola izan behar ote zuten horren berri? Zer irizpen tekniko jarraitu dira hori onartzeko?

Alkateak erantzuten dio ondo dakiela Udalak arkitekto aholkulari bat duela kontratatuta, eta horrek aztertu zuen PAUa. Ondoren, idazkariari igorri zitzaion txostena, eta idazkariaren en aholkuari jarraituz, udal arkitektoari bidali zitzaion, berak aztertu zezan eta zegokion txostena egin zezan. Horrela hiru pertsona horien txostenetan eta esandakoetan oinarrituta hartu zen erabakia.

Gilen Garciak azaltzen du, euren ustez, bertan jasotzen errepidearen zabalerari buruzko zehapen teknikoen haratago, zirkulazio arazoak daudela, batzordetan, osoko bilkuretan eta bestelako bileratan behin baino gehiagotan aipatu dituztenak, eta inmobiliariarekin egin den ibilbidearekin, kezka sortzen diela eurekin kontrastatu ez izana estrategikoa den gai horren inguruan, batez ere, ikusita aurreko agintaldian zer esijentzia maila egon zen informazioari buruz. Prozedura aldetik onartzen dutela eskumena alkatearena dela, baina erabaki horiek hartu aurretik batzordetatik pasatzen zirela, eta deigarria iruditzen zaiela gaia batzordera eraman eta batzordeburuak ezer ez jakitea horri buruz. Epeei buruz galdetu zutela eta jaso zuten erantzuna izan zela ezin zutela ezer ziurtatu. Jakin badakitela Grupo Eibarrekin egiten diren proiektuetan, euren eskariz, egutegi bat zehazten dela, eta ezagutu beharko zutela zeintzuk diren epe horiek, gero jakin ahal izateko betetzen ote diren ala ez, eta deigarria egin zitzaizela, orain errepide hori zentzu bakarrekoa planteatzea, irizpide aldaketa bat egon dela, eta Orain Debaiko ordezkariak ere esan zuela berak ez zuela horren berririk. Hortaz, prozedura jarraitu zela eta Alkatetzaren dekretuz onartu zela, baina euren ustez, hori akats larri bat dela, ikusita, elkarrizketa soil batekin euren ekarpenak egin ahalko zituztela, bai Agirretxeko deposituaren inguruan, bai errepidearen inguruan, baina ez dutela aukerarik izan ekarpen

horiek egin ahal izateko, eta orain onartuta dago, eta euren ustez, ez da izan erabakirik egokiena.

- 2024/27 Dekretua: «*Bertan behera uztea brigadako arduraduna eta zerbitzu anitzeko langile lanpostuak betetzeko oinarriak eta deialdiak.*» Dekretu hau komentatu nahi duela gauzak egiteko beste moduak daudela erakusteko baliagarria delako, kasu honetan, bai pasa zelako batzordetik dekretua sinatu baino lehen.

Bestelako adierazpenik edota galderarik ez daudenez, Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

3.- Vialine enpresak kudeatutako trafiko isunei buruzko Alkatetzaren dekretuen kontrola.

Alkateak galdetzen du galderak edo iradokizunak ote diren gai honen harira.

Ez dago ez galderarik ez iradokizunik, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

4.- Onartzea, hala badagokio, Deba Musikal Patronatuaren zuzendaritza batzordeko bokalen izendapena.

Alkateak gaia azaltzen du. Patronatuaren estatutuen arabera zuzendaritza batzordeak osatzen dute, Debako alkatea, lehendakaria izango dena, eta, alde batetik, Udalbatzan ordezkaturako alderdiek proposaturako hiru zinegotzi eta, bestetik, herriko musikarekin lotutako elkarteek proposaturako beste hiru kide. Horrela, jaso dira alderdien eta elkarteen proposamenak, eta horien arabera, horrela osatuko zen Deba Musikal Patronatuaren zuzendaritza-batzordea:

Lehendakaria: Alazne Txurruka Allika, alkatea.

Bokalak:

- Ainhoa Urbieta Egaña, EAJ-PNV taldeko zinegotzia.
Ordezkoak: Jon Riaño Ojanguren eta Asier Urain Buenetxea.
- Itziar Irizar Beristain, EH BILDU taldeko zinegotzia.
Ordezkoak: Gilen Garcia Boyra eta Aritz Larrañaga Unanue.
- Isidro Aristi Oruezabal, ORAIN DEBA taldeko zinegotzia.
- Igor Baroja Careaga, Gure Kai Dantza Taldearen ordezkaria.
- Mari Carmen Gorosabel Urkia, Aitzuri Abesbatzaren ordezkaria.
- Jon Garate Barrueta, Debako Musika Bandaren ordezkaria.

Gaia Antolakuntza batzordeak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako ohiko bileran aldeko irizpena eman zuen, eta, bozketa egin aurretik, ez inork zerbait adierazi nahi duen galdetzen du.

Gilen Garciak azaltzen du proposamenarekin bat datozela, baina, jakin nahiko zutela zein izan den arrazoa hilabete horietan guztietan izendapena ez egiteko.

Alkateak dagozkion azalpenak ematen ditu.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzen du proposaturako pertsona horiek izendatzea Deba Musikal Patronatuaren zuzendaritza-batzordea osatzeko.

5.- Onartzea, hala badagokio, Turismo batzordea Lurraldetasun batzordean txertatzea.

Alkateak gaia azaltzen du nola gobernu osatzekoan bost batzorde egotea erabaki zela, eta Turismo



2024SPLE0001
1.bilera: OHIKOA 2024/01/31

eta Gizarte Politika eta Berdintasun batzordetako burua Isidro Aristi izendatu zela. Arazo pertsonala direla eta Turismo batzordeburua izatea uzteko eskaera egin duela, eta gaia Antolakuntza batzordetik eta Lurraldetasun batzordetik pasa dela, bi batzorde horiek Turismo batzordea desegin eta batzorde horrek zeraman gaiak Lurraldetasun batzordeari esleitzeko proposamenaren aldeko irizpena eman zutelarik.

Gilen Garciak azaltzen du, beste behin ere arreta deitu ziela gai honek. Hasiera batean, eta beste azalpenik gabe, Antolakuntza batzorderako deialdian idatzi soil bat erantsi zen, eta aurrekontuen inguruko bilera batean euren harridura adierazi zutela, baina gobernu taldetik ez zutela azalpenik eman nahi izan. Antolakuntza batzordean Isidrok azalpen gehiago eman zituen, eta hori egin izan eskertu ziotela. Lurraldetasun batzordean adierazi zela batzordearen eta azpibatzerdeen buruzagitza EAJren esku geldituko zirela, eta galdetzen du hori baieztatzen ote duten.

Alkateak adierazten du gauza pare bat argi utzi nahi duela. Alde batetik, esan duela aurrekontu bilera batean gaia aipatu zutela, baina hori ez zela horrela izan, zeren eta aurrekontuen bilera egin zenerako Antolakuntza batzordearen bilerarako gai zerrenda jasota zutela, hortaz, hori izan baitzen gai honi buruz izan zuten lehen informazioa. Eta, bestetik, dokumentu soil bat jaso zutela esatea ez dela zuzena. Dokumentu horretan Isidor Aristik esaten zuena zela Turismo batzordearen buru izateari utzi nahi zuela arrazoi pertsonalengatik, eta inork arazo pertsonalak dituela azaltzearekin nahiko arrazoiak eman dituela iruditzen zaiola. Horrela, ez duela uste gauzak Gilenek azaldu duen moduan izan direnik, askoz argiagoak baizik.

Gilen Garciak gehitzen du aurrekontuen bileran euren harridura azaldu zutela, une horretan ez zutela bestela informaziorik, Gero Antolakuntza batzordearen bileran azalpen gehiago eman zirela gai horren inguruan eta esan duenean dokumentu soil jaso zutela da dokumentu horrek esaldi bakarra zuelako, eta arrazoi pertsonalak hori ez dutela epaitzen, baizik eta adierazi nahi duena dela ez dokumentu hori bakarrik izan zutela bestelako informazio gehigarrik gabe.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aldeko zazpi (7) botoekin, eta sei (6) abstentzioekin, onartzen du Turismo batzordea Lurraldetasun batzordean txertatzea.

6.- Onartzea, hala badagokio, 2024ko Udalbatzaren ohiko bileren egutegia.

Alkateak azaltzen du, gai hau ete Antolakuntza batzordean aztertu izan zela eta aho batez, aldeko irizpena eman zuela. Izan ere, 2023ko uztailaren 12an eginiko osoko bilkuraren bileran, ohiko bilerak hilabete bakoitzeko azken ostegunetan egitea erabaki bazen ere, 2024an martxoko eta uztailako azken ostegunak jai egun dira, eta, abendukoa, berriz, Eguberri egunaren ondorengoa. Horiek horrela, hiru egun horietan egin beharko ziren osoko bilkuraren bileren egunak aldatzea proposatu zen eta horrez gain, 2023ko abenduaren 21ean eginiko osoko bilkuraren bileran erabaki zen gaurko bilera 25etik 31ra atzeratzea.

Gilen Garciak, azaltzen du batzordearen bilera horretarako ez zirela konturatu, baina proposamenean jasotzen ziren aldaketaz gain, urriaren 31 ere hileko azken osteguna dela eta, jai bezpera denez, komenigarria litzatekeela bilera horren eguna ere aldatzea, egun bat aurreratuz, hau da, urriaren 30era.

Udalbatzak, aho batez, onartzen du 2024ko osoko bilkuraren egutegia. Horrela hauek izango dira osoko bilkuraren ohiko bilerak egingo diren egunak:

URTARRILA	2024/01/31, asteazkena.
OTSAILA	2024/02/29, osteguna.
MARTXOA	2024/03/21, osteguna.
APIRILA	2024/04/25, osteguna.
MAIATZA	2024/05/30, osteguna.
EKAINA	2024/06/27, osteguna.
UZTAILA	2024/07/23, asteartea.
ABUZTUA	-----
IRAILA	2024/09/26, osteguna.
URRIA	2024/10/30, asteazkena.
AZAROA	2024/11/28, osteguna.
ABENDUA	2024/12/19, osteguna.

7.- Onartzea, hala badagokio, 2024ko aurrekontua.

Alkateak udal talde bakoitzak beste postura azaltzeko txanda bat irekitzen du, eta, berak, EAJ-PNV udal taldearen postura azaltzeko, hau irakurtzen du:

«Gaur aurkezten ditugun aurrekontuak 9.946.508€ko kopurua suposatzen dute, aurreko urtekoak baino %7,9 handiagoak. Kopuru honetatik, Itziarko Auzo Udalarari 1.060.800€ dagozkio, eta Deba Musikal Patronatuari, berriz, 669.608€.

Aurrekontu hauek aurrerapauso garrantzitsua dira eta ikuspegi ekonomiko eta sozial berritua aurreikusten dute eta gure herriari hasiera berri bat ematea ahalbidetuko dute. Gizarte- Gizarte-polituketara bideratutako aurrekontua %15.6 handitu dugu, eta 590.667€ira iritsi gara. Horri esker, besteak beste, alokairurako laguntzak nabarmen handituko ditugu eta eguneko zentroko zerbitzuak eta dibertsitate-plana landuko ditugu. Inklusioa eta aukera-berdintasuna bermatzea da gure nahia.

Abian jarri nahi ditugun gizarte-politikak babesteko, funtsezkoa da gure merkataritza, industria eta turismo-sarea babestea. Horregatik, garapen ekonomiko eta turismorako inbertsioa %46 handitu dugu, herriko enpresa txiki eta ertainen garrantzia aitortuz; era berean, turismoa sustatzeko aurrekontua hamar aldiz handiagoa da. Ekintza hauek Debako bizi-kalitatea hobetzeaz gain, gure tokiko ekonomia indartzea dute helburu.

Inbertsio estrategikoei dagokienez, aurten 893.846 euro bideratuko ditugu helburu honetara. Egingo diren inbertsioen artean, 100.000 euro bideratuko ditugu Debaren errealitatera egokituko den Zaintza-ekosistema bat garatzeko, gure adinekoak gobernu talde honen politiken erdigunean baitaude, zalantzarik gabe. Energia-eraginkortasuna ahalbidetuko duen proiekturako 223.000 euro bideratuko ditugu eta Zumardiaren berritze lanen hasiera 50.000 euroekin emango diogu.

Oposizioarekin lau bilera egin ditugu, eta izandako elkarrizketetan aurrekontuak lantzeko hainbat ikuspegi txertatzea izan dugu helburu. Haien aldetik lankidetzeta aktiboagoa espero



2024SPLE0001
1.bilera: OHIKOA 2024/01/31

genuen arren, prozesu garden eta eraikitzailearekin konprometituta jarraitzen dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiot bereziki Orain Debari bere laguntzagatik eta ahaleginagatik, baita zinegotzi guztiei eta Deba hobearen alde nekaezin lan egin duen taldeari ere. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiet idazkariari, kontu-hartzaileari eta Udaleko talde tekniko osoari bere dedikazioagatik eta profesionaltasunagatik.»

Ondoren, Gilen Garcia, EH Bilduren bozeramaileak, hau irakurtzen du:

«Gaur Debako Udaleko 2024ko aurrekontuak onartuko dira.

Negoziaketa prozesuari eta udal gobernuaren jarrerari dagokionean:

- EAJ-k eta bereziki Alkateak pertsonalki gidatutako prozesua izan da. Alderdien arteko elkarrizketarako eta eztabaidarako tarte gutxi izan dugu: udal gobernuaren proposamenarekin bat egiten ote genuen jakitea zirudien helburu bakarra. Orain Debaren iritzirik ez dugu jaso prozesu guztian zehar.*
- Udal gobernuak egindako proposamenaren nondik norakoen azalpenak jaso beharrean, aldatu diren partiden eta irizpideen arrazoiak galdetu ondoren bakarrik jakin ditugu. Hala ere, egin ditugun galderei erantzuna eman zaie.*
- Negoziaketarako borondate gutxi somatu dugu, gure bozkaren zentzua positiboa izan dadin akordiotara heltzeko borondate urria ikusi dugularik. Udal gobernuak ezarritako epeak jarraitu ditugu, behin baino gehiagotan, bidalitako dokumentazioa aztertzeko eta gure proposamenak egiteko apenas denborarik izan ez badugu ere.*
- EH Bilduk jarrera eraikitzailea izan du prozesuan zehar galderak, ekarpenak eta proposamenak eginez. Egiteko moduei dagokionean edo proposamen zehatzetan gure iritzia argi adierazi dugu, beti ere arrazoiak emanaz.*

Aurrekontuari eta partidei dagokienean:

- EH Bilduk egindako proposamenak partzialki izan dira aintzat hartuak. Hitzek gure ekarpenak kontuan hartuko direla adierazi zaigu, baina ekarpen horiek partzialki ikusten dira zenbaki eta partidetan.*
- Etxebizitza plana: azterketa soila izatetik plana izatera igaro izana garrantzitsua iruditzen zaigu. Gure ustez partidan ez da nahikoa diru aurreikusten, baina beharraren arabera partida doitzeko konpromisoa adierazi zuen Alkateak. Gure udalerriko egoera larriari irtenbidea ematen hasteko ezinbesteko bitartekoa da.*
- Udalerrri osoko azterketa sozio-ekonomikoa: aurreko agintaldian hartutako konpromisoak jarraituta HAPOaren aurre-lanketarako ezinbesteko tresna izango da etxebizitza planarekin batera. Partidan ez da nahikoa diru aurreikusi.*
- Zumardiko jolas parkea: udal gobernuak 50.000€ aurreikusi ditu zumardia “edertzeko”. Partida hori jolas parkearen inguruan egindako partidetzat saioretatik ateratako emaitzak inplementatzeko erabili dadila eskatu dugu. Alkateak gure ekarpena kontuan*

izango zuela adierazi zigun, zehazki inon jaso ez bada ere.

- *Ludoteka proiektua: aurreko agintaldian indar politiko guztiek zerbitzu honen beharra identifikatu eta proiektuarekin aurrera jotzeko konpromisoa hartu zuten. Udal gobernauak "dirurik ez dagoela" argudiatuta, aurten proiektu honi ez diola helduko adierazi du. Ez dugu ikuspegi honekin inondik inora bat egiten, eta EAJren irizpide aldaketa ulergaitza iruditzen zaigu, are gehiago hain argudio ahula baliatzen duenean.*
- *Itziarko Auzo Udalaren aurrekontua: azken urteetan elkarlanean adostu izan da, aurten ez bezala. Langileen kostuaren kalkuluar dagokionez, gure ekarpenen ondoren, irizpide bateratuaren alde jo izana ondo ikusten dugu. Aurrekontuaren kalkulua egiteko erabilitako irizpideak ordea, erabat arbitrarioak dira eta kezka sortzen digute. DUS dirulaguntzak konpentsazio bat dira, ez aurrekontua. Aurten horrela izan bada, nola izango da datorren urtean? Zein da udal gobernua irizpidea?*
- *Deba Musikal Patronatuko aurrekontuak ez dira EH Bildurekin landuak izan.*

Guzti hau kontuan izanik:

- *Uste dugu udal gobernauk, eta batez ere Alkateak, herritar gehien ordezkatzan dituen indarra den EH Bildu aintzat hartzeko ariketa sakonagoa egin beharko lukeela.*
- *EAJ-k koherenteago beharko lukeela uste dugu, batez ere oposizioan egon denean exijitu duenagatik. Gure iritziz lankidetzarako gune eta tarteak eskaini behar dira, frontoi dinamikak alboratuz.*
- *Udalerrarentzat estrategikoak diren alorretan aurrera egiteko aukera ikusten dugu, eta horrela izan dadin lan egingo du EH Bilduk.*
- *EH Bilduren orain arteko elkarlanerako borondateari helduz, eta herriak eskatzen digun arduragatik, udal gobernuari konfiantzazko botoa eman eta aurrekontu proposamen honen aurrean abstentziora joko dugu.»*

Azkenik, Isidro Aristik, Orain Debako zinegotziak, hau irakurtzen du:

«Estos presupuestos son los que nos hacen mirar al futuro de este pueblo con optimismo, tras cuatro años en los que hemos sufrido tal parálisis que no hemos visto ejecutar ningún proyecto de entidad para el mismo.

Venimos de un periodo 2019-2023 en el que el presupuesto municipal ha subido 791.090 euros en gastos de personal, lo que ha supuesto un incremento de 8 trabajadores más. Hemos realizado un gran esfuerzo por revertir esta situación y poner en marcha actuaciones pendientes:

- *Con dos años de retraso, se han sorteado las viviendas tasadas de Elizburu y se ha producido al inicio de su construcción.*
- *Tras un proceso de diálogo con los afectados se ha conseguido solucionar el problema del traslado de los restos funerarios desde el cementerio de Amillaga al nuevo de Artzabal, durante tanto tiempo enquistado y así poder hacer el nuevo vial de Amillaga, aligerando la carga del tráfico a los vecinos de Agirretxe y Mogel y cumpliendo los trámites, empezar a construir el proyecto de Amillaga a partir del 2025.*
- *Se afronta el problema del alquiler de viviendas, con un aumento considerable de la partida destinada al mismo y la firme voluntad de cambiar las bases de las ayudas para*



2024SPLE0001
1.bilera: OHIKOA 2024/01/31

así facilitar su acceso al que lo necesite.

- *Mediante un estudio de Matia Instituto, se ha iniciado durante este mes el estudio del proyecto de un ecosistema de cuidados para Deba, mediante la construcción de un equipamiento de alojamientos para personas mayores con necesidad de apoyos y cuidados.*
- *Se ha aumentado la partida destinada a la promoción económica y el turismo ambos sectores estratégicos para el desarrollo venidero del pueblo.*

Son algunas de nuestras actuaciones previstas para este año, al que entramos con optimismo por lo que ha de venir y aportando toda nuestra energía para la mejora de nuestro pueblo, dejando atrás el pasado y mirando al futuro.»

Arantza Egaña, Itziarko auzo-alkateak, hitza eskatzen du, eta hau irakurtzen du:

«Itziarko Auzo Udalaren aurrekontuen balorazioa.

2024 urterako jaso dugun aurrekontu proposamenarekin gure desadostasuna adierazi nahi dugu. Siadeco-k eginiko txostenean oso garbi ageri da zein den aurrekontuak onartzeko eta kalkulua ateratzeko beharrezkoa den prozedura. Azken urteetako negoziaketak medio, pasa den legealdiko talde politiko guztiekin adostasun batera iritsi, eta egindako hitzarmenean oraindik langileek Itziarko Auzo Udalari eman beharreko dedikazioa adostuta ez dagoen arren, erdibideko bat bilatzeko gai izan ginen guztion artean eta aurrekontuak onartu genituen.

Aurtengoan berriz, nahiz eta Debako Udalak jasoko dituen sarrerekin, aurrekontuan %5,72ko igoera izan duen, Itziarko Auzo Udalari etorri zaion eskaintza iazko berbera da. Zenbaki kalkuluetan mugimendu arraro bat egin da eta izandako bileretan ez dugu sumatu aldaketarako inongo asmorik. Kontuan izan behar da, aurtengoan gastuek igoera itzela izan dutela (zabor bilketa aurrekontua %13 igo zaigu, 50000€ inguru) eta zenbait dirulaguntza kobratzerakoan atzerapenak izan ditugula; besteak beste, guzti honengatik, inbertsioetarako eta bide konponketetarako dirurik gabe geratzen gara.

Debako Udalak eginiko langileen kostuaren inguruko azken proposamena ontzat hartuta ere, hau da, 196.329€koa, Itziarko Auzo Udalari dagokion zifra 1.147.528€ lirateke, eta ez 1.050.000€koa. Beraz, guri legez dagokiguna ematea eskatzen dugu, ez dugu inolako aurrekaririk sortu nahi aurrekontuaren kalkuluan. Azken urteetan erabilitako formula ontzat emanda genuen dagoeneko, eta ezin dugu ulertu nola iritsi garen aurtengo konklusioetara.

Hala ere, Debako Udaleko Gobernu Batzordearekin izandako elkarrizketan agindu digute diruz lagunduko zaigula urtean zehar proiektu ezberdinetan tokatzen zaigun kopurura iritsi arte. Beraz, konpromiso hau berrestea eskatzen dugu gaurko plenoan.»

Alkateak, Arantza Egañari erantzuten dio, esanez, DUS5000 proiekturako Debako Udalak aurreratutako 118.000 eurokin Auzo Udalak jokatzeko aukera proposatu zutela, baina gertatzen dena dela dirulaguntza hori jasotzeko denbora luze joko duela dirudiela, eta bilera honen

bezperan, hitz egindakoaren harira, 97.000 euroko diferentzia dago Auzo Udalak eskatzen duena eta Udalak ematen duenaren artean, eta Udalak diferentzia hori urtean zehar betetzen joango dela. Hitz eman zutela, et eurek hitza betetzen dutela.

Auzo alkateak zehazten du diferentzia hori ez dela eskatzen dutena, baizik eta tokatzen zaiena.

Gilen Garciak zehazten du gaizki ulertu direla berak esandako hitzak, berak esan duena izan dela Itziarko Auzo Udalaren aurrekontua elkarlanean adostu izan dela azken urteetan, elkarlanean eta ez negoziazioaren bidez. EAJren eta Debarren Ahotsaren babesarekin hitzarmen bat sinatu zutela eta pautak batzuk ezarri zirela, aurrerantzean, gauza horiek argi gera zintezan.

Orain Debari erantzuten dio egiten duen irakurketa ez duela gauzak bere globalitatean hartzen, eta aintzat hartu behar dela herria bezala nondik gatozen, eta datuak azaldu behar direla, zeren eta diskurtsuekin ez dutela elkarri konbentzitu. Euren udal gobernu minorian izan zela, eta hala ere, gauza gehienak aho batez atera zutela aurrera, pandemia bat izan zutela tartean, eta horiek guztiak ere kontuan hartzeko.

Itziar Irizarrek azaltzen du Alkatearen hitzaldian aipatutako inbertsiorako zenbatekoak ez direla aurrekontuan azaltzen ea nondik irtengo diren galdetzen du, eta etxebizitza planerako aurreikusitako zenbatekoa txikiegia iruditzen zaiola.

Alkateak erantzun dio inbertsioak altxortegiko gerakinarekin osatuko direla, eta etxebizitza planerako Ekain enpresaren 14.000 euroko aurrekontu bat dutela, eta horren arabera jokatu dutela.

Gilen Garciak azaltzen du jasotzen diren aurrekontuak eskatutakori erantzuten ohi dutela, eta aurreko agintaldian, Deba antzeko ezaugarriak dituzten beste herri batzuetan egindakoa aintzat hartuta, etxebizitza planari eskatu behar zitzaizkionari buruz asko eztabaidatu zela. Oraingo agintaldian ere horiek guztiak azaldu direla Lurraldetasun batzordean, eta euren ustez, etxebizitza plana egiteko aurrekontua ez da nahikoa hori guztia egiteko. Hala ere, konfiantza boto bat eman dutela, eta, horregatik, abstentziora joko dutela.

Besterik gabe, bozketara pasatzen da, eta Udalbatzak, aldeko zazpi (7) botoekin, eta sei (6) abstentzioekin, onartzen ditu 2024ko aurrekontuak.

8.-Eskari eta galderak.

Alkateak galdetzen du ea inork baduen eskaera edo galderarik.

Gilen Garciak azaltzen du hiru aipamen egin dituela:

8.1.- Lehena, Luzaro eskolaren jolas gunearen harira, 2023ko abenduaren 11n Antolakuntza batzordearen bileran azaldu zela abenduaren 31rako lanak bukatuta egongo zirela, eta jakin nahi dutela zergatik urtarilaren erdialdean oraindik langileak ari ziren bertan.

Alkateak azaltzen du dagoeneko obra bukatuta dagoela, eta egia dela agindu zirela lanak abenduaren 31rako bukatuta egongo zirela, baina, azken unean hanbat gauza agertu direla, adibidez, hesia kendu zutenean agertu ziren zementuzko hodi batzuk edo, eta horrek obren amaiera pixka bat luzatu zuela, baina, horrek ez duela eraginik izango dirulaguntza kobratzeko orduan.

Gilen Garciak erantzuna eskertzen du eta, galdetzen du zergatik ez zen eman horren guztiaren berririk Lurraldetasun batzordearen bileran.

Alkateak erantzuten dio bilera egin zenerako obra amaituta zegoela eta ez zutela ikusi



2024SPLE0001
1.bilera: OHIKOA 2024/01/31

beharrezkoa zenik.

Gilen Garciak adierazten du, ekarpen gisa, nahiz eta gobernu taldeak beharrik ez ikusi, eurek bai ulertzen dutela informazioa ematea oso garrantzitsua dela, eta ez dela ezer kostatzen, gardentasun ariketa bat dela, eta horrelako galderak ekiditeko balio duela.

8.2.- Artzabalgo seinaleak, UEMAKo herri euskaldun batean bizi garela adierazten zuena, eta indarkeria matxistaren aurkako, zergatik ez ote zaien adierazi horiek kendu behar zirela?

Alkateak erantzuten dio seinale horiek ez zeundela behar zuten tokian jarrita, baizik Geoparkeko ordaindutako seinale batean eta kentzeko agindua jaso zen. Horren ondorioz, kendu egin ziren eta beste toki batean berriro ere jarriko direla.

8.3.-Itziar bideko jolas parkea. Horren berri webgunetik izan dutela, eta jakin nahi dutela zergatik ez zaien horren berririk eman Lurraldetasun batzordean.

Alkateak erantzuten dio eskaerak egon zirela jolas parke horren egoera txarra zela eta brigadakoei eskatu ziela gaia aztertzeko, eta oso diru gutxiekin, brigadakoek konpondu egin dute.

Gilen Garciak zehazten du galdera zela ea zergatik ez zitzairen horren berririk eman batzordean, eta alkateak erantzuten dio egun batetik bestera egindako gauza bat izan zelako.

Gilen Garciak azaltzen du gogorarazi nahi duela osoko bilkura honen erabakiz udal honetarako lanean aritzeko ardura eman zitzaiola, eta, modu informal batean bada ere, gauzak horietaz informazioa jasoz gero, udal gobernuak bere ardura betetzeaz gain, galdera hauek guztiak ekidindo zirela, eta eurek ere herritarren ordezkariak direnen heinean, informatuta egon beharko zirela uste duela.

Besterik ez dagoenez, 19:50etan alkateak amaitutzat ematen du osoko bilkuraren bilera.

Alazne Txurruka Allika
Alkatea



Jose Luis Salaberri Iñarra
Idazkaria

